

Iruzun Eskaut Gia Talde Laikoa – Talde egoera berria

Aupa, egun on.

Taldearen gaur egungo egoerari buruz berri emateko idazten dizuegu. Guraso bileran eta pasa den urriak 23 eta 24ko apertura irteeran (Beizama) komentatu genuen, baina inor jakin gabe geratu ez dadin, bidaltzen dizuegu.

Jefe (begirale) kopurua edo/eta hauek eman dezaketen denbora murriztu denez, ezin dugu ekintzetan adar bakoitzeko bi jefe egongo direla ziurtatu, hortaz ekintza kopurua gutxitzea erabaki dugu, hauen kalitatea eta, kasu askotan, iraupena handituz.

Beraz, larunbatetan orain arte egin diren moduko ekintzak gehienak, Oinarinen Abentura eta Azkarren Enpresa metodoak oraingoz eta denboraldi baterako etetea erabaki dugu. Hilabetean bi ekintza egingo dira eta hauek, taldekoak izando dira gehien bat, nahiz eta batzutan adarkako banaketak egingo ditugun.

Zer motako ekintzak egingo ditugu? Mota guztitakoak egia esan, egun osoko irteerak, tokiak bisitatu, jolas handiak (hiritik pista jokua...), beste elkarteekin ekintzak, ekintza bereziak, etab.

E.E.G.E.ko (Euskal Eskaut Gia Elkartea) irteerak eta F.E.G.eko (Federación Española de Guidismo) Azkarren topaketa mantenduko ditugu.

Zuen iradokizunak entzuteko prest gaude, baita zuen gurasoenak ere, beraz, ez beldurrik izan eta nahi duzuen proposatu!!

Kanpamenduak egiten jarraituko dugu, negukoa eta aste santukoa 4 egun eta 3 gaukoak izatera pasako direlarik. Udarakoaren kanpaldiaren iraupena zehaztu gabe daukagu oraindik (motzagoa egitea pentsatzen gaude) eta hasierako irteera orain arte bezalakoa izan da.

Gurasoentzat irekiak izango diren ekintza batzuk antolatuko ditugu (noiz diren esango dizuegu), beraz zuenak etortzera animatu (ez lotsatu!). Ziur zuek bezain ondo edo hobe pasako dutela eta jefeentzako laguntza izango dira gainera.

Ekintzak web orrian jarriko ditugu, beraz, erne egon zaitezten eskatzen dizuegu. Norbaitek zailtasun edo arazoak balitu internet erabiltzako, abisatzearekin nahikoa izango da eta informazioa gutunez edo telefonoz emango dizuegu.

Hauek dira oraingoz programatutako ekintzak:

- Azaroak 6: TXURI URDIN, 16:00 – 19:00, 7€/pertsonako (eskuan eraman, mesedez).
- Azaroak 20: PISTA JOKUA, 16:30 – 19:30 Buen Pastoren.
- Abenduak 12: Egund osoko irteera (gurasoei irekia) 10:00 – 18:00 gutxi gora behera.
- Abenduak 18: Kanpaldirako Adar ekintza prestatu, 16:30 – 18:30 Buen Pastoren.
- Neguko kanpaldia: Abenduaren 26tik 29ra izando da. Tokia eta ordutegia zehaztu gabe.

Edozein zalantzerako nahi duzuen jefeari deitu ☐ Istar (Koxkorra): 618208439; Luis (Koxkorra): 666536338; Leire (Oinarina): 677780103; Mikel (Oinarina): 653745008; Araika (Azkarra): 646505036; Itxaso (Azkarra): 686509142; Ibon (Trebea): 658709337.

Egoera berri honek eragozpenik ez zortzea espero eta disfrutatzeke aukera berri baten aurrean gaudelaren ustetan eta kurtsoan zehar ikusiko garelakoan, Iruzun Eskaut Gia Talde Laikotik agurtzen zaituztegu.

P.D.: Urteko kuota 50€ra jetxi dugula esateko aprobeztatzen dugu (45€/pertsona bi anai-arreba izanez gero eta 40€/pertsona hiru anai-arreba edo gehiago izanez gero).

